



## IRUDI KORPORATIBOA

2004an Dbusek bere irudi korporatiboa modernizatu zuen, logotipotzat Euskal Herriko hegoaldeko zuhaitz igela hartuta eta izen komertzialtzat Dbus izena. Era berean, diseinuan urdina eta berde koloreak sartu ziren. Urdina Donostiari lotutako kolorea da eta berde koloreak, berriz, Dbusek ingurumena hobetzen egiten duen ahalegina agerian jarri nahi du.

Azken hamarkadan Dbuseko irudi korporatiboa sendotzen joan da eta oso marka ezaguna bihurtu da, bai maila lokalean bai kanpoan, Europako proiektu askotan parte hartzeagatik eta Estatuko eta nazioarteko erakunde askorekin elkarlanean aritzeagatik.



## 1 DONOSTIAKO UDALAREN IRUDI BERRIA TXERTATZEA

2017an Donostiako Udalak bere irudi korporatiboa modernizatu zuen, hiriaren harmarri ofiziala oinarri hartuta, baina tratamendu sinplifikatuago eta garbiagoarekin. Irudi berria hiriaren hain bereizgarriak diren koloreetan oinarritzen da, hau da, urdin eta zuri koloreetan.

**Erabiltzaileekiko komunikazioa hobetzeko**, 2017ko uztailean Dbusek Udalaren irudi korporatiboa hartu zuen, egun duen hegoaldeko zuhaitz-igelaren logoa eta Udalaren logo berria batera egoteko, eta agerian geratzeko Dbuseko zerbitzua udalaren garraio zerbitzua dela.



## 2 EUSKAL HERRIKO HEGOALDEKO ZUHAITZ-IGELA

Dbusen irudia da 2005az geroztik. Desagertzeko arriskuan dagoen animalia da, baina Donostiako alde batzuetan oraindik ere existitzen da.

Europako dauden anfibiorik txikienetako bat da, espezie horretako animali helduek gehienez 5-6 cm dituzte eta. Gorputzaren kolorea berde argi eta distiratsua dute, nahiz eta kolorearen tonua ez da berdina zonalde guztietan. Batzuek puntu txiki beltz batzuk dituzte bizkarraldean.





Lina City **MAN**

[www.db](http://www.db)

Ekonomia: garbiagoak + isilagoak

bus

